

SORGINAK XIII

Mahumak eta Ingumak artikitzen dituzte orduan beren mibi-seak eta aihen ihartuak, hiltzen beren argiak, eta pusku hoik guziak zoko batean gordatzen. Leihoak idekitzen dire berriz, edo aintzineko argiak phizten.

VI

XOBADINA, KATTALIN, LUIXA, MARIA ETA XANETA

XOBADINAK.—Sobraxko ez othe ziren horiek oro, haurrak?

KATTALINEK.—Fitsik ez da, ama! Ur xorta bat begitartera eta sendo dituzkegu biak. Gure adixkideak, Joanna eta bertzeak, gordeak hortxet baitaude, banoa heien oihuka ekharraztera, ja urrun joanak balire bezala. Zato, Luixa, ez gaituzte hemen ikusi behar, atzarriko direlarik.

Badoazi biak, eta Xobadina emaiten da Mariaren eta Xaneta-  
ren arhatzen, oihal busti batez heien ferekatzen bezala. Mariak eta Xanetak, aski laster, idekitzen dituzte begiak, begi ilhaun eta matatu batzu; eta orduan berean, alegia eta lasterka, sartzen dira bertze guziak.

VII

XOBADINA, MARIA, XANETA ETA BERTZEAK ORO

OROK.—(Oihuka) Zer da, zer da?

KATTALINEK.—Zer ziren oihu izigarri hoik oro?

Maria eta Xaneta jarririk emaiten dituzte ororen artean.

MARIAK.—(Emeki emekiño mintzo delarik:) Orizue, haurrak, zuen amak oro badakizka. Bihotzikan aski ez dugu zer iragan den erraiteko.

Edari on xorta bat emaiten diote Luixak.

LUIXAK.—Hurrupa zazue hau, Maria, Xaneta!

MARIAK.—Hobeki naiz, hola! Xaneta ere, dudarik gabe. Xutik emaiteko on bagira segurik, bagoazi etxerat. Segi gaitzatzue, othoi, haraino...

Gure gaixtakeria guzitik sendatuak giren bezala, mustro eta harramantza guziak suntsitu ahal dira, hek ere, behin bethikotz!...

XANETAK.—Gau on, Xobadina! Othoitzño bat egizu garen dohakabeentzat!

XOBADINAK.—Jainko onak lagunt zaitzatela!

Badoazi Maria, Xaneta; bertze guziek (salbu Xobadinak), laguntzen dituztela.

VIII

XOBADINA (Bakarrik, mahuin eta jar alki, oro beren tokietan emaiten ari.)

XOBADINAK.—Hauxe da gerthakaria!... Ahulegi izan othe naiz? Jainkoa, zuk barkha!...

Bainan nork atxik gazte hoik guziak?... Eta bertz'alde, beren katixima ongixko ikasia zuten, gaizkiari aztaparrak moztu behar zaizkola, eta behingotz! Zer ihardetsiko nuen, zer ihardesten ere ahal nuen? *Tapatu* " naute, *tapatu*, eta ederki...

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. XOBADINAREN Zelantza eta umilia
2. Kattalin bethi agintari.
3. Sorginen urrikimendua.

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Ez gaituzte 32. Joanak balire  
33. Segi gaitzazue 34. Lagunt zaitzatela.  
35. Tapatu naute

31 UKAN Conj. trans. à cplt direct: pronom pers.

Gu = nous - Indicatif Présent.

Zuk gaituzen = vous nous avez.

Harek gaitu = il nous a.

Zuek gaituzue = vous nous avez.

Heiek gaituzte = ils nous ont.

Imparfait.

Zuk ginduzen = vous nous aviez.

Harek ginduen = il nous avait.

Zuek ginduzuen = vous nous aviez.

Heiek ginduzten = ils nous avaient.

32. IZAN Suppositif éventuel.

(3<sup>ème</sup> forme) [ si j'avais été ]

Ni izan banintz

Hi " bahintz

Zu " bazine

Hura " balitz

Gu " bagine

Zuek " bazinezte

Heiek " balire etc.

33. UKAN Conj. trans. à cplt. direct: pr. pers.

Gu = nous - Imperatif.

Zuk UKAN gaitzazu = Ayez - nous

Harek " gaitza = qu'il nous ait

Zuek " gaitzazue = Ayez - nous

Heiek " gaitzate = qu'ils nous aient